# George Mitchell senatariaren printzipioak

Erresuma Batuko Gobernuak, Irlandakoak eta Irlanda iparraldeko alderdi politikoek George Mitchell senatariak proposatutako sei puntu hauek sinatu zituzten prozesuan aurrera egiteko. Hona hemen, printzipio horretako puntuak, hitzez hitz:

«Negoziazioko alde guztiek datozen puntuekin erabateko konpromisoa hartzea aholkatzen dugu:

- Bide demokratiko eta baketsuak bakarrik erabiltzea gai politikoak konpontzeko.
- Talde paramilitarren erabateko desarmea.
- Desarme hori batzorde independente batek egiaztatzeko modukoa izatea adostea.
- Alderdi guztien arteko negoziazioen bilakaeran eragiteko helburuz indarra erabiltzeari edo indar bidezko mehatxu egiteari norberak uko egitea, eta gainerakoak indarraren erabilera horretan saiatzearen kontrako jarrera agertzea.
- Alde anitzeko negoziazioetan lortutako edozein akordiotako baldintzak errespetatzea, eta bide demokratiko eta baketsuetara soilik jotzea, desadostasunak dauden emaitzetan edozein aldaketa egiten saiatzeko.
- Heriotzen eta zigorreko jipoien amaiera eskatzea, eta halako ekintzak gerta ez daitezen urrats eraginkorrak egitea».